

A ANTZUOLA



MAKINERIA. Horrelakoak erabiltzen zituzten garai batean nekazariak, garia mozteko. BERRIA

GARI-JOTZEA ANTZUOLAN


TRADIZIOA ETA ELKARTASUNA, ESKUTIK

EUSKALDUNOK SARRITAN ERAKUTSI DUGU GURE IZAERA SOLIDARIOA. HORI ARGI IKUSIKO DA GAUR, ANTZUOLAN (GIPUZKOA) ANTOLATU DEN GARI-JOTZEAN. OHITURA ZAHAR HORI BERRESKURATUZ, DIRUA LORTU NAHI DUTE, HIRUGARREN MUNDURA BIDALTZEKO

AZKEN URTE HAUETAN, nabaria izan da gizartean gertatu den bilakaera teknologikoa. Horren adibide garbienak nekazaritza arloan ikus daitezke. Garai bateko nekazariak erabiltzen zituzten tresna eta makina asko desagertu egin dira, eta aukera gehiago eskaintzen dituztenengatik aldatu. Egun batez behintzat, antzuolarrek alde batera utziko dituzte makina berriak, eta garai batean garia ebaki eta aletzeko erabiltzen ziren tresnak berreskuratuko dituzte. Helburua dirua biltzea da, Afrikara eta Ameriketara bidaltzeko.

Anelkar elkarteko kide Jose Mari Iturbe eta Kontxi Laskurain senar-emazteak izan dira ideiarene bultzatzaileak. Galiziar egindako bidaia batean, nekazari bat ikusi zuten antzinako erara garia ebakitzen eta aletzen. Euskal Herrian ia galduta dagoen ohitura da hori, eta harriturik begiratu zioten laborariari: «Nik inoiz ez nuen horrelakorik ikusi, eta nire gizonak txikitako oroitzapenak baino ez zituen», dio Kontxi Laskurainek. Urtero bezala, hirugarren munduko proiektuak bultzatzeko dirua batzeko ekintza bat prestatzea erabaki zuten duela hilabete batzuk Anelkar elkarteko kideek. Horretan ari zirela, Iturberi eta Laskuraini Galizian ikusitakoa berreskuratzea bururatu zitzaizen.

Hilabete batzuetako lanaren ostean,



BRASILEN ur putzu bat egin nahi dute Anelkar elkarteko kideek. BERRIA

gaurko guztia prest dutela adierazi du Laskurainek: «Orain jendea etortzea da garrantzitsuena. Etorkizunean oso gutxi ikusiko den zerbait da, eta, gainera, helburua hirugarren mundurako dirua lortzea da. Hortaz, jendeari Antzuolara etortzeko deia egin nahi diogu».

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da era-

kustaldia, Antzuolako Idalatorre baserrian dagoen gari sailean. Garia bi modutan moztuko dute: makinaz eta igitaiarekin. «Garai bateko baserriarrek erabiltzen zituzten bi moduak dira horiek», dio Laskurainek. Ebakitakoarekin gari sortak eta metak egingo dira, eta Antzuolako eskolara jaitsiko dituzte, gurdiz. Bertan de-

BOST URTEKO LANA

Anelkar elkartea duela bost urte sortu zen, hirugarren munduaren alde lan egiteko asmoz. Hala ere, Juan Antonio Lizarrade apaizak bultzatuta, Antzuolan aspalditik zebilen herritar talde bat lan horretan. Lizarralde Brasilgo Canudos herrira joan zen, hango herritarrei laguntzera. Haren lagunak dirua, arropa eta janaria biltzen hasi ziren, hara bidaltzeko. Nahikoa ez zenez, herrian lan horretan ari zen beste talde batekin bildu ziren, indar gehiago izateko asmoz. Orduetik aurrera asko izan dira dirua biltzeko abian jarri dituzten ekimenak. Herritarren jarrera oso ona izan da, eta, beraz, beren helburua lan horretan jarraitzea da. Oraingoz hiru dira esku artean dituzten proiektuak: Brasilgo Canudos herrian ur putzuak egitea, Senegalen udaleku bat egitea eta Kongon ikastetxe bat eraikitzea.

EGITARAUA

- 17:00-18:00: Gari-ebaketa.
- 18:30-20:00: Gari-jotzea.
- 20:00-22:00: Galapaixa eta erromeria.

segin egingo dituzte, eta gari-jotzea egingo dute. Hori ere bi eratara egingo dute: makinaz eta eskuz. Azken modu hori asko erabiltzen zen lehen. Baserriarrek gari sorta hartu, eta harri baten kontra botatzen zuten, erabat desegin arte. Hori gus-tuko ez dutenentzat, herriko bi errotak ikusteko aukera izango da

Aspaldian gure herrian ikusten ez diren lanak dira horiek. Antzuolan, esaterako, orain 20 urte ikusi zuten azken gari soroa, Sasketa baserrian. Hortaz, ez da erraza izan gaur erabiliko dituzten makina eta tresnak eskuratzea. Azkenean, Sasketa baserrira jo zuten, eta bertako jabeek igitaiak eta makinak utzi zikieten. «Nahiko makina zaharrak dira. Sasketa baserriko aitona esan digunez, makinetako bat garia ebakitzeko Antzuolan erabili zen lehenengoetakoa da», azaldu du Laskurainek.

Amitzean galapaixa esaten diotena egingo dute. Gari mozketa taldean egiten zen garaiko ohitura da hori. Oso lan gogorra zen; hori dela eta, indarrak biltzeko, ugazabak afari-merienda eskaintzen zien lanean aritu ziren guztiei. Bertan, taloa jaten zuten, eta gaur ere hala egingo dute.

Erakustaldia ikusteko ez da sarrerarik ordaindu behar, baina Anelkarteko kideek bost gazta, intxaurrak eta ardoa zozkatuko dituzte. Bertan parte hartu ahal izateko txartelak erakustaldian salduko dira. Bildutako diruarekin Senegalen udaleku bat eraikiko dute, Brasilen ur putzu batzuk egingo dituzte eta Kongon ikastetxe bat. ●

AINARA ARRATIBEL